


# Urnietako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2013-2016)



Urnietan, 2012ko azaroan



## AURKIBIDEA

<b>0. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
0.1. METODOLOGIA: Plana diseinatzeko erabilitako metodologia.....	4
0.2. PLANAREN MARKO KONTZEPTUALA ETA LEGALA.....	8
0.2.1. Zertaz hitz egiten dugu Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaz ari garenean? .....	8
0.2.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako politiketarako arau-markoa.....	10
<b>I. URNIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA.....</b>	<b>14</b>
1.1. Urnietan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko lan-ildoak.....	15
1.2. Urnietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren helburuak .....	16
1.3. Urnietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana garatzeko lan-ildo, helburu eta ekintzak.....	18
1.4. Urnietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekintza-plana (2013- 2016) .....	23
1.5. Urnietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana garatzeko egiturak .....	34
<b>II. ERANSKINAK: URNIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN PLANAREN URTEZ URTEKO KUDEAKETA PLANAK .....</b>	<b>37</b>
2.1. 2013ko ekintza-plana.....	38
2.2. 2014ko ekintza-plana.....	41
2.3. 2015eko ekintza-plana.....	45
2.4. 2016ko ekintza-plana.....	50



## 0 . SARRERA

I. Berdintasun Planaren diseinua Urnietako Udalak **Elhuyar Aholkularitzarekin** izandako hitzarmenaren emaitza da eta **Emakundek diruz lagundutako egitasmoa**. Berdintasun Planaren diseinua egiteko **parte-hartzean oinarritutako prozesu bat** landu dugu eta prozesu horretan egindako lanarekin txostena osatu dugu: **Urnietako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana** (2013-2016). Plan honen diseinurako ezinbesteko tresna izan da aurretik baina urte berean landutako diagnostikoa: Urnietako Emakume eta gizonen berdintasunaren Diagnostikoa (2012ko urria) .

Planak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana ditu erreferentzia gisa. Arau hauek, alde batetik, berdintasunerako politikak eta baliabide estrategikoen ezarpena bultzatzen dituzte administrazioaren barruan, eta bestetik, herritarrentzako jarduketak emakumeen berehalako beharrei erantzun ahal izatea sustatzen dute.

4/2005 Berdintasunerako Legeak eta EAeko V. Berdintasunerako Planak, erreferentziazko lege marko izateaz gain, balio izan dute udalez gaineko erakundeekin koordinatuta jarduteko, helburuak, neurriak eta estrategiak finkatzeko esparru metodologiko gisa.

Urnietako Emakume eta Gizonen I. Berdintasunerako Planaren diseinua prozesu parte-hartzaile baten bidez bideratua izan da. Horretarako, 3 lantalde osatu dira Urnietako biztanleriaren eragile adierazgarriekin: interesa agertu duten herritarrak, politikariak, eta Udaleko teknikariak. Guztira, 34 herritarrek hartu dute parte, lautik (%65 emakumeak eta %35 gizonak). Herritarrez gain, Urnietako Udaleko teknikariek eta odeskari politikoez ere parte hartu dute. Guztiei, eskerrak eman behar dizkiegu egin dituzten ekarpenengatik.

Azkenik, lantaldeek egindako lanketatik Berdintasunerako Plana adostu da. Plan honek Udalaren eta Udalerriaren ezaugarri eta beharrei erantzuten diela uste dugu.




## O.1. METODOLOGIA: Plana diseinatzeko erabilitako metodologia

Berdintasun Planaren diseinua egiteko herritarren, herriko eragileen, udaleko teknikarien eta ordezkari politikoen parte-hartzea bermatu duen prozesua jarri dugu martxan. Diagnostikoaren emaitzak oinarri gisa hartuta, aurrera begira jartzeko honako lantalde hauek sortu ditugu:

LANTALDEAK	BILERA-KOP.	PARTAIDEAK	PARTAIDE-KOP		
			Guztira	Emakumeak	Gizonak
HERRITARREN TAILERRA	1	Interesa izan duten herritarrak	11	10	1
UDAL TEKNIKARIEN TAILERRA		Udaleko teknikariak	11	8	3
ORDEZKARI POLITIKOEN TAILERRA		Udaleko ordezkari politikoak	12	4	8


Lantalde bakoitzean Berdintasun Planaren oinarriak landu ditugu eta, diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuta, helburu eta proposamen zehatzak landu ditugu. Plana diseinatzeko tresna garrantzitsuena beraz, 2012an landutako *Urnietako Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasunaren inguruko Diagnostikoa* izan da.

Laneko prozesuan honako hau izan da **bileren hurrenkera**:



Prozesu osoan zehar, komunikazio-lanari garrantzi berezia eman zaio herritarren parte-hartzea lortzeko eta Urnietan bizi diren pertsona guztiak prozesuan parte hartzeko gonbitea jaso dutela bermatzeko. Martxan jarritako komunikazio-ekintzak hauek izan dira:

- Herriko Berritu aldizkarian elkarrizketak.
- Kartelak herri osoan zehar.
- Diagnostikoaren prozesuan parte hartu zutenei gutunak. eta deiak
- Arlokako eragileei gutunak eta hainbat telefono-dei..
- Urnietako komunikabideetara prentsa-oharrak.
- Herriko eragile-sozial gisa identifikatu ditugu herriko elkarteak, eta izaera zein arlo guztietako elkarteei bidali izan zaie prozesuaren inguruko informazioa fase ezberdinetan zehar.



Prozesuan parte hartu duten herritarren artean izan dira euren izenean etorri direnak eta baita, Urnietakoko hainbat alorretako elkarte eta eragileen izenean etorri direnak ere. Jarraian, prozesuan parte hartu duten **elkarte eta eragile** horiek jaso ditugu:

PROZESUAN PARTE HARTU DUTEN URNIETAKO ERAGILEAK			
Goiburua Xoxoka elkarte	Egape-dantza taldea	Banaiz Bagara	Odol emaileen elkarte
Egape ikastola	Poxtazahar Gazte elkarte	Iñistorra elkarte	Urnietako Salestarrak

Politikarien tailerrean aldiz, urnietako Udaleko talde politiko guztiek parte hartu dute: EAJ/PNV, BILDU eta PSE-EE/PSOE.

## OINARRI METODOLOGIKOAK

Prozesua metodologikoki diseinatzeko **IAP** (Investigación Acción Participativa) izenez ezagutzen dugun **metodologiaren oinarriak** hartu ditugu kontuan. Xedea da talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea eta prozesu horien bidez, harremanak aldatzeaz gainera, posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraikitzea. Horrez gain, harreman-aldaketa suposatzen du.

IAP metodologiak prozesuan parte hartzen dutenei **gizarte-sareak berreraikitze**ko aukera ematen die, hausnarketaren bidez gizarte-sareak eraldatzeko aukera sortzea, alegia. IAP metodologiak gizarte-zientzietan tradizionalki erabili diren metodo eta teknikak erabiltzen ditu, baina berezitasun bat du: **dinamizazioarekin eta parte-hartzearekin lotutako teknika bereziak erabiltzen ditu**.


**Ondorioz, lantaldeak eta beraiek egindako lana izan dira prozesuaren ardatz nagusia. Lantalde bakoitzak, hau da, bertan parte hartu duten pertsonak, 2 ordu eskaini dizkiote prozesuari: 2 orduko bilera bana egin dugu lantalde bakoitzean.**

Jarraian, Elhuyar Aholkularitzak prozesuan erabilitako oinarriak edo printzipioak jaso ditugu:


- **Parte-hartzea:** parte-hartzea ez dugu informazioa eman eta iritzia eskatzera mugatu, guretzat benetako parte-hartzea gauzak ezagutu, elkarrekin landu, aztertu eta denon artean zerbait sortzean gertatzen baita. Uneko errealitatea aldatzeko baldintza subjektiboak eta objektiboak sortu behar dira; horretarako bidea lan-prozesua bera izan da.



ELHUYAR  
aholkularitza



- Nola ulertzen dugu, beraz, parte-hartzea prozesu honetan? Prozesu honen helburua emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruz hausnartzea eta eztabaidatzea izan da. Hau da, eraikuntza kolektiboaren bitartez emakumeen beharrak, zailtasunak eta nahiak definitzea, betiere parte hartu duten pertsonen prozesua bere eginez.  
Prozesu honetan sortutako parte-hartzeak ere badu etorkizunera begirako eragin biderkatzailea. Izan ere, diseinua dinamika parte-hartzaile batean oinarritzen den heinean, Planaren garapena eraginkorra izateko aukera handiagoa izango da, baita eragile guztien eta Udalaren kolaborazioa lortzekoa ere.
- **Malgutasuna:** oinarria pertsonekin lan egitea izan denez, aurreikusitako lanak eta epeak moldagarriak izan dira. Prozesua abiatu aurretik zein prozesuak irauten duen bitartean, prozesuaren arduradunek eta partehartzaileek beharrezkotzat jo dituzten aldaketak proposatu dituzte, eta egokitzat jo diren neurrian, prozesuetan egokitzapenak egin dira.
- **Hezkuntza-prozesua:** prozesu parte-hartzailea eraldaketa-prozesua izan da, hau da, eraldaketa-prozesu guztiak bezalaxe hezkuntza-prozesua izan da. Emaitzez gain, prozesuak berak protagonismo berezia izan du, bertan parte hartu dugun pertsona guztiok prozesutik ikasi egin dugu (norbanakoek, taldeek eta erakundeek), elkar elikatuaz.
- **Subjektibitatea:** prozesuen ardatza pertsonak izan dira, eta, horregatik, pertsona arteko harremanek ere pisu nabarmena izan dute prozesuaren urrats guztietan; hala nola: egitasmoetan parte hartu dugun kideok gure artean ezagutzen eta konfiantza lortzen denbora eman dugu, etab. Eraldaketa-prozesua arrakastatsua izan dadin, jarrera aldaketa beharrezkoa dela uste dugu eta pertsona bakoitzaren alderdi "pertsonala" lantzea, eta horrek subjektibitatea lantzea suposatzen du.
- **Hizkuntza ofizialen erabilera:** EAEan euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira eta euskara da Erkidegoko berezko hizkuntza. Getxoko Udala EAEko erakunde publikoa den neurrian eta euskara sustatzeko politika indarrean duenez, prozesuan koherentziaz jokatu dugu. Horrela, euskara idatzizko zein ahozko harremanetan erabili da, eta beharrezkoa izan denean gaztelania erabili da.
- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna:** proiektuak genero ikuspegia bermatu du prozesuaren egiturari dagokionez, lantaldeetan parte hartu duten emakume eta gizonen kopuruak, hizkuntzaren trataera, etab. kontuan izan dira. Gure prozesuetan oinarritzekoak dira pertsonen interesak, beharrak... arreta berezia jarriaz emakumeen eta gizonen ikuspegia txertatzea; beraien interesak, beharrak, ikuspegiak, zailtasunak, proposamenak, irtenbideak... kontuak izan dira, espezifikoak eta bereiztuak.



## 0.2. PLANAREN MARKO KONTZEPTUALA ETA LEGALA

### 0.2.1. Zertaz hitz egiten dugu Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaz ari garenean?

Atal honetan, planaren oinarri kontzeptualak diren printzipio orokorrak garatuko dira. Printzipio hauek Urrietako aukera-berdintasunaren arloan egiten diren politikak bideratuko dituzte, benetako berdintasuna eragozten duten oztopoei aurre eginez eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatuko duten neurriak proposatuz.

Berdintasunaren kontzeptua aztertu aurretik, sexu-genero sistema aipatzea beharrezkoa ikusten dugu. **Sexu-genero sistemak** jarraian azaltzen diren bi elementuen identifikazio-harremana ezartzen duten mekanismo soziokulturaleri egiten die erreferentzia:


- **Sexua:** Emakumeen eta gizonen artean ematen den ezberdintasun biologikoa definitzen du, modu sinplean esanda, neska jaiotzea ala mutila jaiotzea.
- **Generoa:** Gizarte batek, une soziokultural zehatz batean, emakume eta gizonei ezartzen dizkien ezaugarri, jarrera eta jokabide bereizgarriak dira. Kontzeptua dinamikoa da (hau da, genero-rolen eduki zehatzak momentu historikoaren eta gizartearen arabera aldatzen dira).

Neska ala mutil jaio izanak ez luke, inola ere, aukera-berdintasuna baldintzatu behar, ez luke lan bera egiteko aukera ukatu behar, edo ez lituzke dirusarrera txikiagoak edo handiagoak baldintzatu behar. Diskriminazioa ez da soilik sexuan oinarritzen baizik eta sexuari atxikitzen dizkiogun hainbat ezaugarrietan, gaitasuneta eta ezintasunetan: indartsua edo ahula izatea; inteligentea edo intuitiboa izatea; erasokorra edo zaintzailea izatea, eta beste ideia estereotipatuen eta murrizten zerranda luze bat, guztiak ere, gure aukera-berdintasuna mugatzen dutenak.

Beraz, diskriminazioa, bazterketa eta indarkeria sexista sexu-genero sistemaren bitartez eraikitzen da. Sistema horren ezaugarri ona bere alde dinamikoa da: sistema horretan eragin dezakegu, sinesmen eta balioetan oinarritzen delako. Azken mendean izugarri aldatu dira bai emakumeen bai gizonen aukerak gure gizartean, eta aukera berdina izan arte berdintasunaren alde eragiten jarraitu behar dugu.

Gaur egun ematen den berdintasun eza ulertzeko bi konzeptu bereizi behar ditugu: berdintasun formala eta benetako berdintasuna.





**Berdintasun formala** emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten erakundeen arau eta legeetan jasotzen da. Diskriminaziorik ezaren printzipioa dakar, legeen aurrean berdintasuna izatea, hots, zuzenbideko berdintasuna, ez izatezko berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko beharrezko baldintza bada ere, ez da nahikoa. Halaber, hauxe aitortzen du Europako Kontseiluak (1982): *“Emakumeen eta gizonen berdintasuna, gizakiaren arrazoiaren eskakizuna bada ere, ez da errealitatea, ideal demokratikoak aldarrikatzen dituzten gizarteetan ere”*.

**Benetako berdintasuna** tratu-berdintasuna da. Pertsonaren sexuan oinarrituriko diskriminaziorik ezan islatzen da, ez zuzenean ezta zeharka ere. Diskriminazioa zuzena dagoela esaten dugu pertsona batek beste batek baino tratu hobea jasotzen duenean sexua edo sexuarekin lotutako beste edozein arrazoi dela-eta. Zeharkako diskriminazioa da gertaera batek sexu bereko pertsonen proportzio handi bati kaltea dakarkionean oinarri-oinarrian.

Printzipio honek bereizketaren ideia dakar izatezko berdintasunerako beharrezko bitartekotza gisa. Bitartekotza horrek aukerak eta emaitzak behar dituzenez gero, beharrezkoa da **Aukera-berdintasunean** lan egitea, hots, gizonekin alderatuta berdintasunaren arloan duintasunez tratatuak izateko eskubidean.

Aukera-berdintasunaren helburua esku hartzeko markoa sortzea da, gizarteko arlo guztietan baldintza, ikusgarritasun, autonomia eta erantzukizun berarekin askatasunez parte hartzeko modua ematen diena emakumeei eta gizoni. Kalitate terminoa da eta giza-eskubideekin lotuta dago zuzenean. Emakumeek bizitza-kalitate hobea lortzeko tresna da, eta horretarako, ekintza positiboak erabiltzen ditu.

**Ekintza positiboak** aldi-baterako neurriak, abiapuntua eta tratamendu berezia dira aukera-berdintasuna lortzeko. Abiapuntuan desabantailak dituztenen aldeko estrategia batean datza ekintza positiboa, hain zuzen, abantaila daramatenen mailara iritsi daitezen. Hala, une jakin batean aukera-berdintasunera iristeko.

Ekintza horiek **Ekintza positiboko planak edo Berdintasun planak** deitzen diren horietan biltzen dira. Izan ere, helburuak egituratzen dituzten tresna politikoak eta administratiboak dira, aukera-berdintasuna lortzeko jarduketara zehatzak bideratzen dituztenak.


Emakumeei buruzko Munduko Hitzaldietan garatu dira emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez gizarte erakundeetan, tokiko politikan edo erakunderik nagusienetan diseinatu diren politikak. Topaketa horien helburua aukera-berdintasuna nazioarteko politiken agendetan txertatzea da. Kongresu haietan aurrerapenak egin ziren harik eta gaur egun generoko Jabetze eta Zeharkakotasunaren inguruko estrategiak aplikatu behar diren inguruko adostasunera iritsi arte (Beijing, 1995).

**Genero-ikuspegia** udalean aplikatzeak esan nahi du sistematikoki plangintza, garapen eta ebaluazio-fase guztietan, emakumeen eta gizonen egoerak, baldintzak, beharrak eta nahiak aintzat hartzea, betiere desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna udalaren politika eta jarduketara guztietan sustatzeko helburu eta neurri espezifikoak txertatuz. Errealitatea genero-ikuspegitik aztertzeak honako hau suposatzen du:

- Emakume, gizon eta hauen erlazioen errealitatea aztertzerakoan egoten diren joera sexistak plazaratzea.



ELHUYAR  
aholkularitza



- Emakume eta gizonen desberdintasunaren atzean dauden egitura-faktoreak identifikatzea, desberdintasun hauek sortu edo birsortzen dituzten diskriminazio-era guztiak atzemanaz.
- Genero-erlazioak birdefinitu, emakumeen egoera agerian utziz, emakumeen beharrak eta interesak kontuan hartuz eta emakumeak gizarteari egiten dion ekarpenari balio handiagoa emanez.

### 0.2.2. Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren politiketarako arau-markoa

Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa, baita sexuaren ziozko edozein bereizkeria-mota beren beregi debekatzea ere, arau juridiko batzuetan jasota daude.

Emakumearen aurkako bereizkeria-era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailan berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, ondoko konpromisoa hartu zuten KBEko kideek: «printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea».

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

Azpimarratzekoa da Urrietako Udalak 2012ko Martxoaren 8an sinatu zuen, Toki Bizitzan emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna, Europako Udallerri eta Eskualdeen Kontseiluak proiektu baten testuinguruan (2005-2006) idatzitakoa, beste hainbat eragilerek batera. Europako toki-gobernu eta eskualdeetako gobernuei zuzendutako idatzia da. Karta honetan aipatzen da tokiko eta eskualdetako agintariak, populazioarengandik hurbilen dauden gobernu-eremuak izanda, desberdintasunen iraunkortasuna eta birsortzea ekiditeko eta berdintasuneko jendarteak lortzeko esku-hartze maila egokienak direla. Esku-hartze eremu hauetan beste toki-eragileekin elkarlanean arituz, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko ekintza zehatzak martxan jar daitezke.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1 artikuluan, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteei pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dutela, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dadin.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartuta (Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa da lege hori), lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zuen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure



Erkidegoko alor guztietan esku hartzeari bultzatzearen beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere<sup>1</sup>.

2004 urtean Espainako Estatuak Genero Indarkeriaren kontrako Lege Integrala (1/2004) onartu zuen, indarkeria honi aurre egiteko estrategia ezberdinak ezarriz, bai juridikoak bai gizarte neurriak (prebentzioa eta biktimaren babes integralerako).

Azken urteetan, Administrazioan aukera-berdintasuna bultzatzeko arauak eta ekintza positiboko planak egin dira Euskal Autonomia Erkidegoan toki, lurralde eta autonomia mailan. Tokiko administrazioari dagokionez, bi erreferentzia hartuko ditugu Urrietako Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana garatzeko: Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen V. Berdintasunerako Plana (IX. legegintzaldiko gidalerroak). Zeharkakotasunaren ildo beretik onartu zen Espainako Estatuan Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunaren Aldeko legea (3/2007).


Lege horrek jauzi kualitatibo handia dakar genero mainstreamina edo zeharkakotasuna aplikatzeko norabidean, zeren eta lege hori baino lehen “emakumearentzako” politika espezifikoak sortzeko praktika baitzen oinarria. Hala, 1998an, Eusko Legebiltzarrak, Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko 2/1988 Legea onetsita, lehentasunezko zatik jo zuen emakumeen diskriminazio modu guztiak desagerraraztea eta emakumeek EAEn eremu guztietan parte hartzea sustatzeko beharrezko neurriak hartzea. Halaber, arlo horretan ekintza koordinatua bultzatzeko eginkizuna hartu zuen bere gain.

4/2005 Legean, beren beregi aipatzen dira tokiko administrazioak, eta horrek bete-betean harrapatzen du Urrietako Udala. Zehazkiago, hauxe esleitu zaio tokiko administrazioari udalei dagokien eskumenei buruzko I. Tituluko 7. artikuluan:

**1.– Gizon eta emakumeen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, banaka edo herri horietako mankomunitateen bitartez edo legea betetzeko eraturako mankomunitateen bitartez, honako eginkizun hauen arabera:**

- a) Egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea genero ikuspegia administrazioan txertatzeko.
- b) Ekintza positiboko neurriak betearaztea toki mailan.
- c) Toki mailako programazioa gobernuaren plangintza orokorraren eremuan eta foru aldundien programazioa.
- d) Estatistika eguneratuak egokitzea eta gordetzea, toki-mailan esku hartzeko eremuetan gizon eta emakumeen egoera desberdina ezagutzea ahalbidetuko duten estatistikak hain zuzen.

<sup>1</sup> 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen Berdintasunerakoa Hemen topa daiteke: [www.euskadi.net/bopv](http://www.euskadi.net/bopv) (2005/03/05)



- e) Emakumeek eta gizonek toki mailan duten egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- f) Gizon eta emakumeen desberdintasunaz eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriez jabetzeko jarduerak egitea toki-mailan.
- g) Tokiko araudiaren jarraipena egitea, baita gizon eta emakumeen berdintasunaren printzipioaren araberako aplikazioa ere.
- h) Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko bitartekoez eta programez informatzea eta bideratzea herritarrek, baita diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialen jabetza bermatzeko programez edo zerbitzuez ere.
- i) Programak edo zerbitzuak ematea, diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialez jabetzea bermatzeko asmoz, betiere zerbitzuen izaera dela-eta udal mailan eman behar badira.
- j) Gizon eta emakumeen bizitza pertsonala eta familia eta lana bateratzeko gizarte-komunitateko bitartekoak eta zerbitzuak ezartzea, betiere, zerbitzuen izaera dela-eta udal mailan eman behar badira.
- k) Erlazioak eta parte hartzeko eta lankidetzarako bideak ezartzea beste erakunde publikoekin eta pribatuekin, baldin eta beren helburuen edo eginkizunen arabera gizon eta emakumeen arteko berdintasuna toki-mailan lortzea bultzatzen badute.
- l) Toki-mailan gertatzen diren sexu-diskriminazioak detektatzea eta horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.
- m) Haien eskumenen barruan agindu dakiekeen beste edozein eginkizun.

**2.– Tokiko administrazioek aurreko paragrafoan ezarritako funtzioak eraginkortasunez betetzen laguntzeko, administraziook Euskal Autonomia Erkidegoaren laguntza teknikoa izango dute, baita foru administrazioen sustapen-neurri egokiak ere.**

Eta “Gizon eta emakumeen berdintasunerako planak” izeneko II. tituluaren 15. artikuluan, hauxe zehazten da:

**“Foru aldundiek eta udalek berdintasunerako planak edo programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorretan ezarritako gidalerroekin eta esku hartzeko ildoekin bat etorritz, eta ondorengoa bermatuko dute, beharrezko bitarteko material eta ekonomikoak eta giza bitartekoak erabiliz: foru aldundietako sailetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan eta menpeko beste erakunde publikoetan edo horiekin lotutakoetan eraginkortasunez eta koordinatuta betearaztea planetan eta legean ezarritako neurriak. Udalek banaka edo mankomunitate gisa edo horretarako eratuko diren mankomunitate gisa egin ditzakete jarduketak. Hartara, Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta foru aldundien diru-laguntza izango dute, bereziki, ekonomi eta kudeaketarako ahalmen txikiena dutenek”.**



Bestalde, Emakundek 2006an onetsitako **EAEko Gizon eta Emakumeen berdintasunerako V. Plana** dago<sup>2</sup>. Plan horretan, IX. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduera bideratu behar zuten gidalerroak bildu dira. Aurreko lau planak indarrean izan diren urteetako eboluzioaren eta aurrerapenen emaitza gisa sortu da, Emakumeen eta Gizonen otsailaren 18ko 4/2005 Legearen onespena irekitzen duen marko berrian.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak bere egin du berdintasunareko gobernantzaren ildotik lan egin beharra berdintasunerako bidean. Estrategia horiek gehitze-efektua dakarte eta berdintasunerako helburuak lortzen laguntzen dute. Zehazkiago, V. Planean, hiru ardatz bildu dira, berdintasunaren arloan esku hartzeko zutabe handiak biltzen dituztenak –emakumeen ahalduntzea eta balioak aldatzea,, antolaketa sozial erantzunkidea eta emakumeen aurkako indarkeria.

Horren ondorioz, Urrietako Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana diseinatzeko, aipaturiko bi neurri horiek eta bertako jarraibideak hartu dira, garaturiko oinarrizko printzipioak udal honetan egokitzeko eta zehazteko.

---


<sup>2</sup> Plana helbide honetan aurki daiteke: [www.emakunde.es](http://www.emakunde.es)



ELHUYAR  
aholkularitza



Gipuzkoako Foru Aldundia



# I. URNIETAKO EMAKUMEEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I.PLANA (2013-2016)

## 1.1. URNIETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO LAN-ILDOAK

Berdintasunaren aldeko **GOBERNANTZA** hobetzeko neurriak:  
oinarrizko baldintzak berdintasunaren printzipioa erakundeetan bertan eta bere funtzionamenduan txertatzeko

### Emakumeen **JABEKUNTZA** eta balioak aldatzea **ZER DA?**

Emakumeen eta gizonen harreman pertsonaletan eta sozialetan oreka handiagoa lortzeko, emakumeek genero harremanak berreraikiz lortu behar dute botere, erabateko autonomia eta herritartasuna lortuta. "Ahalduntze" hitzak "boterea areagotzea" esan nahi du; hau da, pertsona bezala indartzea eta norberaren egoera sozial, ekonomiko eta politikoa sendotzea. Pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide era erabakiei buruzko autoritate atea boterea areagotzea.

### Antolakuntza sozial **ERANTZUNKIDEA** **ZER DA?**

Bateratzeaz haratago, **erantzukidetasuna** berdintasun politiken printzipio gisa ezarri, hau da, emakumeak zein gizonak eremu publikoan eta pribatuan erantzukizuna hartzea eta, batez ere, gizonak eremu pribatuan duten partaidetza areagotzea izango du helburu. Honetarako bateratze erantzunkideak eta denboraren erabilera berriak sustatuz.

### Emakumeen aurkako **INDARKERIA** **ZER DA?**

Honen kausa eta jatorria emakumeek jasaten duten ezberdintasun-egoera estrukturala da. Indarkeri horrek hainbat aurpegi ditu, diskriminaziotik eta mespretxutik hasi eta eraso fisiko edota psikologikoa eta hilketara arte. Oso eremu desberdinetan ematen da (familian, lanean, trebakuntzan...), baina ikusgarritasun berezia hartzen du bikotearen eta etxeke eremuetan,

## 1.2.URNIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAREN HELBURUAK

HELBURUAK	
<b>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza</b>	<p>A. Berdintasun Plana gauzatzeko egitura eta baliabideak zehaztea</p> <p>B. Udalez gaindiko eta sailen arteko koordinazioan genero-ikuspegia txertatzea</p> <p>C. Sailek euren jardunean genero-ikuspegia barneratzea</p> <p>D. Emakumezko eta gizezkoen arteko ordezkariak parekidea handitzea</p> <p>E. Udaleko bere barne zein kanpo komunikazioek genero ikuspegia</p>
<b>GOBERNANTZA</b>	<b>EKINTZAK</b>
<b>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza</b>	<p>G-1 Berdintasun Plana udal-barnean zein kanpoan hedatzeko komunikazio-euskarri eta ekintzak garatzea</p> <p>G-2 Eudel, Berdintasunak eta Emakunde antolatutako koordinaziorako ekintzetan parte-hartzea</p> <p>G-3 Udaletxean gauzatzen diren estatistika eta ikerketa-lanek genero ikuspegia izatea</p> <p>G-4 Udaleko ordezkari politikoek genero-ikuspegiarekin lan egiteko koordinazio gunea bat izan dezatela</p> <p>G-5 Udaleko teknikariek genero-ikuspegiarekin lan egiten dutela bermatzea, garatzen dituzten jardueren planifikazio, garapen eta ebaluazio faseetan.</p> <p>G-6 Udaleko langileek, euren jardunari dagokion berdintasunari buruzko trebakuntza zehatza jasotzea</p> <p>G-7 Ordezkari politikoek generoaren inguruko trebakuntza espezifikoak jasotzea</p> <p>G-8 Udaleko kontratazioetan ezarriko diren berdintasun-irizpideak zehaztea.</p> <p>G-9 Udalaren barne zein kanpo komunikazioa sexista izan ez dadin irizpideak zehaztu eta erabilera zaintzea</p> <p>G-10 Diru-laguntza deialdietan aukera-berdintasunaren sustapena baloratzen denetan horrela jarraitu eta gainontzekoetan egiten hastea.</p> <p>G-11 Berdintasunerako herritarren parte-hartze organo bat eratzea, honetan herriko eragileek, elkarteek eta udal ordezkariak hartu ahal izango dute parte, eta udalak zein herriko elkartegintzak gauzatzen duten jarduna bateratu, komunikatu eta koordinatzeko gunea izango da.</p> <p>G-12 Gainontzeko sailei berdintasunaren aholkularitza emango dien berdintasun-egitura sortu/indartzea</p>



## LAN-ILDOAK ETA HELBURUAK

<b>AH. Emakumeen ahalduntzea eta balioak aldatzea</b>	AH1	Urnietako emakumeen autonomiaren garapena eta genero kontzientzia bultzatzea
	AH2	Udal-administrazioan zein herritarren artean balioen aldaketa bultzatzea, sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak deuseztatuta
	AH3	Pobrezia edo bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen egoera hobetzea
	AH4	Lan-munduan emakumearen presentzia indartzea eta ikustaraztea
	AH5	Emakumeen ahotsa indartzea udal-politika publikoen diseinu eta garapenean eta erabaki eta eragin alorretarako euren irismena zein horretarako bideak indartzea.
	AH6	Nagusi den edertasun-eredua indargabetzea osasunean eredu horrek dituen ondorio negatiboak prebenitzeko
<b>ER. Antolaketa sozial erantzunkidea</b>	ER1	Erantzunkidetasuna eta zainketaren etika sustatzea
	ER2	Enpresen kultura kontziliazio erantzunkiderantz aldatzea
	ER3	Hirigintzako plangintza eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak kontziliazio erantzunkidera egokitzea
<b>IN. Emakumeen aurkako indarkeria</b>	IN1	Indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatzea
	IN2	Biktima diren emakumeen babes eta arreta osoa bermatzea
	IN3	Portaera bortitzak garaz hautematea eta informazioa zabaltzea

### 1.3. URNIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA GARATZEKO LAN-ILDO, HELBURU ETA EKINTZAK

AH.- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA/	
HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>AH.1.- Urnietako emakumeen autonomiaren garapena eta genero kontzientzia bultzatzea</b></p>	<p>AH1-1 <i>Emakumeen ahalduntzea bultzatzea martxoaren 8ko eguna eta bestelako data esanguratsuak baliatuz</i>            AH1-2 <i>Herriko emakumeen jabeakuntza sustatuko duten ikastaro eta jardunaldiak antolatzea</i>            AH1-3 <i>KZgunean teknologia berrien erabilpenaren inguruko ikastaroen eskaintzan emakumezkoentzako talde bat sortzea, eta jadanik dauden ikastaroetan parte hartzen animatzea</i>            AH1-4 <i>Urnietan bizi diren emakumezko guztiak oinarrizko hezkuntza bat izatea sustatu, EPArekin lankidetzan.</i>            AH1-5 <i>Urnietako emakumeen historia transmititzeko aukerak aztertzea, horren berri emateko bideak sortu eta egun esanguratsuak baliatu; horren inguruko azterketa gehiago egiteko bideak eraiki. (adibidez beka bat sortuz)</i></p>
<p><b>AH.2.- Udal-administrazioan zein herritarren artean balioen aldaketa bultzatzea, sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak deuseztatuz</b></p>	<p>AH2-1 <i>Balioen aldaketa sustatu eta sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak deuseztatzen lagunduko duten sentsibilizazio eta trebakuntza eskaintzea udal-langileei.</i>            AH2-2 <i>Herriko ikastetxeekin hezkidetzak programak garatzea</i>            AH2-3 <i>Euren jarduna Urnietan garatzen duten elkartei (kultura, kirola, osasuna...) Berdintasunean lan egiteko deia egitea.Udalaren eta elkarten arteko harremanak sendotzea.</i></p>

## AH.- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA/

HELBURUAK	EKINTZAK
	<p>AH2-4 <i>Herri komunikabideei genero berdintasunean oinarritutako komunikazioa erabiltzeko deia egitea, eta horretarako beharrezko bideak jartzea (trebakuntza, gidak ...)</i></p> <p>AH2-5 <i>Ludotekako begiraleekin jarduera plan bat garatzea, hurrekin egiten dituzten ekintzetan genero-ikuspegia txertatuz</i></p> <p>AH2-6 <i>Maiatzaren 17a, Homofobia eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko eguna baliatzea herritar eta ikasleekin estereotipo eta rol sozialen inguruko sentsibilizazioa lantzeko, jarduera ezberdinak antolatuz</i></p> <p>AH2-7 <i>Kirol maskulinizatu eta feminizatueta emakume nahiz gizonen parte-hartzea bultzatzea, estereotipoak gaindituz</i></p> <p>AH2-8 <i>Kultur arloan jarduera maskulinizatu eta feminizatueta emakume nahiz gizonen parte-hartzea bultzatzea, estereotipoak gaindituz</i></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>AH.3.- Pobrezia edo bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen egoera hobetzea</li> </ul>	<p>AH3-1 <i>Pobrezia edo bazterketa egoeran dauden emakumeentzako lan-munduratzeko trebakuntza eta ikastaroak eskaintzea</i></p> <p>AH3-2 <i>Pobrezia edo bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen egoera zein beharrak ezagutzeko ikerketa garatzea.</i></p> <p>AH3-3 <i>Pobrezia edo bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen egoera hobetzeko ekintzak garatzea</i></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>AH.4.- Lan-munduan emakumearen presentzia indartzea eta bisualizatzea</li> </ul>	<p>AH4-1 <i>Eskualde mailan genero-ikuspegia kontuan hartzea enpleguaren eta lanaren arloko jarduna planifikatu eta garatzerakoan</i></p> <p>AH4-2 <i>Emakumeen beharrak ezagutzeko diagnostikoan oinarritutako politika eta jarduera egokiak hastea</i></p>

## AH.- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA/

HELBURUAK	EKINTZAK
	AH4-3 <i>Ikastetxeekin elkarlanean, hezkidetzan oinarritutako lan munduratzearen inguruko orientazioa eskaintzea bideratu</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• AH.5.-Emakumeen ahotsa indartzea udal-politika publikoen diseinu eta garapenean eta erabaki eta eragin alorretarako euren irismena eta horretarako bideak handitzea.</li> </ul>	AH5-1 <i>Legeak markatu bezala udaleko organo politikoetan emakume eta gizonen arteko parekidetasuna bermatzen jarraitu eta parekidetasun handiagoa sustatzea</i> AH5-2 <i>Herriko elkarteetako zuzendaritza organoetan emakume eta gizonen arteko parekidetasuna bermatzeko bideak ezartzea, adibidez dirulaguntzetan kontutan hartuta, eta gaiaren inguruko hitzaldiak antolatuz</i> AH5-3 <i>Emakumeen ahotsa indartzea helburu izango duten jarduerak antolatzea (erakusketak, hitzaldiak, jardunaldiak, sorkuntzarako beka bat...)</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• AH.6.- Nagusi den edertasun-eredua indargabetzea osasunean eredu horrek dituen ondorio negatiboak prebenitzeko</li> </ul>	AH6-1 <i>Ikastetxe eta herriko osasun eragileekin gaiaren inguruko lanketa egitea, prebentziorako</i> AH6-2 <i>Herri mailan hitzaldi /ekintzak antolatzea nagusi den edertasun ereduaren inguruko kritika sustatzeko</i>

ER. ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUNKIDEA	
HELBURUAK	EKINTZAK
ER1 Erantzunkidetasuna eta zainketaren etika sustatzea	ER1-1 <i>Udaleko langile zein ordezkari politikoei lana eta bizitza pertsonala uztartzeko eta ardurak partekatu ahal izateko neurri zehatzak hartzea</i> ER1-2 <i>Banatzeko-prozesuetan dauden bikoteei informazioa eskaintzea eta seme-alaben zaintza-akordioetan erantzunkidetasuna sustatzea</i> ER1-3 <i>Zaintzaren zein erantzunkidetasunaren inguruko tailer eta ikastaroak antolatzea herriko emakumezko zein gizonezkoen zuzenduak egongo direnak</i>
ER2 Enpresen kultura kontziliazio erantzunkiderantz aldatzea	ER2-1 <i>Eskualdetik enpresen kulturaren eragitea, kontziliazio erantzunkidearen inguruko informazioa eta aukerak ezagutzera emanez</i>
ER3 Hirigintzako plangintza eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak kontziliazio erantzunkidera egokitzea	ER3-1 <i>Merkatarien elkartearen eta herriko eragileen artean gaiaren inguruko eztabaidarako foroa sortzea.</i> ER3-2 <i>Eraturiko foroan identifikatzen diren gabeziak konponbideak bilatzen laguntzea herriko merkatariari, topa ditzaketan zailtasunentzako babesa eskainiz.</i>



ELHUYAR  
aholkularitza



EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIA	
HELBURUAK	EKINTZAK
IN1 Indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatzea eta portaera bortitzak garaiz hautematea	IN1-1 <i>Gazteekin lan egiten duten begiraleen trebakuntza, euren jardunean portaera sexistak prebenitu ditzaten</i> IN1-2 <i>Portaera-eredu ez bortitzen garapena sustatzeko kanpainak eta jarduerak antolatzea</i> IN1-3 <i>Herriko ikastetxeetan gaiaren inguruko sentsibilizazio kanpaina egitea</i>
IN2 Biktima diren emakumeen babes eta arreta osoa bermatzea	IN2-1 <i>Tokiko Emakumeen aurkako Indarkeria kasuetarako protokoloa eratzea, Urrietako errealitatera egokitzen dena</i>
IN3 Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta horren inguruko sentsibilizazioa garatzea	IN3-1 <i>Herrian segurtasun eza sortzen duten puntu-beltzak identifikatu eta aldaketak proposatzea</i> IN3-2 <i>Herrian puntu-beltz berriak ez sortzeko neurriak hartzea</i> IN3-3 <i>Bereziki, jai edo ekitaldiak antolatu eta disenatzean puntu-beltzen sorrera ekidin. Horretarako prozesu horretan parte hartuko duten herriko eragile, kultur-elkarte zein udaletxeko langileak kontzientziatuaz.</i> IN3-4 <i>Azaroaren 25a, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna baliatzea, gaiaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko herri mailako eragileekin</i>

#### 1.4. URNIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EKINTZA-PLANA (2013- 2016)

Ekintza	Urtea				Parte hartzaileak	Arduraduna	Adierazleak
	2013	2014	2015	2016			
G-1 <i>I. Berdintasun Plana udal-barnean zein kanpoan hedatzeko komunikazio-euskarri eta ekintzak garatzea.</i>	1000				Udaleko sail guztiak		Garatutako euskarri eta ekintzak
G-2 <i>Eudel, Berdinsareak eta Emakundek antolaturiko koordinaziorako ekintzetan parte-hartzea</i>					Udaleko sail guztiak	Gizarte ekintza	Parte-hartutako ekintza kopurua
G-3 <i>Udaletxean gauzatzen diren estatistika eta ikerketa-lanek genero ikuspegia izatea</i>					Udaleko sail guztiak	Udal- administrazioa	Genero-ikuspegia txertatuta duten estatistika eta ikerketa-lan kopurua
G-4 <i>Udaleko ordezkari politikoei genero-ikuspegiarekin lan egiteko koordinazio gune bat izan dezatela</i>					Udaleko sail guztiak	Berdintasun zinegotzia	Koordinazio gunea sortu izana

Ekintza	Urtea				Parte hartzaileak	Arduraduna	Adierazleak
	2013	2014	2015	2016			
G-5 <i>Udaleko teknikariek genero-ikuspegiarekin lan egiten dutela bermatzea, garatzen dituzten jardueren planifikazioa, garapen eta ebaluazio faseetan..</i>					Udaleko sail guztiak	Berdintasuna	Genero-ikuspegia txertatuta daramaten jarduera kopurua
G-6 <i>Udaleko langileek, euren jardunari dagokion berdintasunari buruzko trebakuntza zehatza jasotzea</i>	1500				Udaleko sail guztiak	Berdintasuna	Jasotako trebakuntza edo ikastaro espezifikoaren kopurua/ ordu kopurua
G-7 <i>Ordezkeri politikoek generoaren inguruko trebakuntza espezifikoa jasotzea</i>	500				Udaleko sail guztiak	Berdintasuna	Jasotako trebakuntza edo ikastaro espezifikoaren kopurua/ ordu kopurua
G-8 <i>Udaleko kontratazioetan ezarriko diren berdintasun-irizpideak zehaztea.</i>					Udaleko sail guztiak	Giza-baliabideen arduraduna	Irizpideak bete dituzten kontratu kopurua



Ekintza	Urtea				Parte hartzaileak	Arduraduna	Adierazleak
	2013	2014	2015	2016			
G-9 <i>Udalaren barne zein kanpo komunikazioa sexista izan ez dadin irizpideak zehaztu eta erabilera zaintzea</i>					Udaleko sail guztiak	Idazkaria	Gaiaren inguruko trebakuntza jaso izana Adostutako irizpideak argitaratu eta hauen betearazpen maila
G-10 <i>Diru-laguntza deialdietan aukera-berdintasunaren sustapena baloratzen denetan horrela jarraitu eta gainontzekoetan egiten hastea.</i>					Udaleko sail guztiak	Idazkaria	Aukera-berdintasunaren balorazioa txertatuta duten dirulaguntza kopurua
G-11 <i>Berdintasunerako herritarren parte-hartze organo bat eratzea, honetan herriko eragileek, elkarteek eta udal ordezkariak hartu ahal izango dute parte, eta udalak zein herriko elkartegintzak gauzatzen duten jarduna bateratu, komunikatu eta koordinatzeko gunea izango da.</i>		(+erakitzen hasi)			Udaleko sail guztiak	Berdintasuna	Gunea eratzea eta gunean parte-hartzen duten emakumezko eta gizonezkoen kopurua
G-12 <i>Gainontzeko sailei berdintasunaren aholkularitza emango dien berdintasun-egitura sortu/indartzea</i>					Udaleko sail guztiak	Gizarte Zerbitzuak/Berdintasuna	Sortu izana Landutako gaiak

Ekintza	Urtea				Parte hartzaileak	Arduraduna	Adierazleak
	2013	2014	2015	2016			
AH1-1 <i>Emakumeen ahalduntzea bultzatzea martxoaren 8ko eguna eta bestelako data esanguratsuak baliatuz</i>					Sustapen Gizarte ekintza	Sustapena	Egindako jarduera kopurua
AH1-2 <i>Herriko emakumeen jabeak sustatuko duten ikastaro eta jardunaldiak antolatzea</i>					Sustapena Gizarte ekintza	Berdintasuna	Ikastaro eta jardunaldi kopurua eta hauetan parte-hartu duten emakumezkoak
AH1-3 <i>KZgunean teknologia berrien erabilpenaren inguruko ikastaroen eskaintzan emakumezkoentzako talde bat sortzea</i>					Sustapena Berdintasuna	Sustapena	Gauzatutako ikastaro kopurua
